

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Under the underground.
The Killministers.
Autoekoizpena.
Iraupena: 37'09".
10 euro.

Ezer ez asmatzekotan, melodia borobilak dituztenekin hunkitu

BAKIO INGURUKOA DA speed-aren errege Lemmyren arrasto faltsua uzten duen taldea, harekin zerikusirik ez duena. Lan berria beraien kabuz kalera-tu dute eta ondo finduta dator gainera. Hain zuzen ere, kantuentzat norabide zehatzagoa finkatu dute oraingoan eta asmatu dutela esango nuke: ingelesez abestutako piezatan power-pop dotoreena (gitarrak eta melodia borobilak osagai nagusi), Bostongo rock gitarroa, 60ko hamarkadako garage urtetsua,

garage ilunagoa edota AC-DCren hastapenetako usaina duten piezak erditu dituzte batez ere; baita Texasko balada izan daitekeen kantaren bat ere. Ohiko punk-rock eresiei bizkarra eman diete, eta hammond-ari eskerrak, kanta sinogarriak idatzi eta interpretatu dituzte. Undergroundaren azpiko sotoan bizi izateak ematen duen axolagabekeriak lagunduta, hazi egin dira.

www.myspace.com/thekillministers

Etor Duandikoetxea - The Killministers

«Ez dugu sonoritate berezirik bilatu katxarro 'vintage'-kin, gurea naturala da»

Under the underground. Infernua baino azpiago zaudete? Undergroundean ere ez dago guztientzat lekunik? Bai, hala da. Undergroundean ere bere estratifikazioa badago eta gure lekua elikadura katearen oinarrian dagoela konturatu ginen kontzertu oso intimo batzuetan eta komunikabideek egiten diguten arreta kontuan hartuta.

Teklatu eta hammondak gero eta protagonismo handiagoa dute zuen kantetan. Abestietako hutsu-neak estaltzen dituzte?

Bai. Gitarra bakarra izanda, teklatuak asko laguntzen dute eta baita pantailak egiteko, koroen antzeko efektua lortzeko. Orain gutxi Aterkings-eko Alberto gehitu zaigu taldera gitarra jotzen eta hori igarriko da.

Oraingoan autoekoizpenaren alde egin duzue.

Gu bezalako talde minoritarioei diskoetxeek tratu eska-

sa eskaintzen digute eta konturatu gara diskoa ateratzeko eta kopia batzuk saltzeko ez dugula beraien beharrik.

Disko honetan aspaldiko taldeen sonoritatea eta nostalgia antzematen da. Nahita egin duzue?

Ez dakit. Beharbada izango da aspaldiko taldeak nahiago ditugulako eta gure jotzeko erak gure gustuak definitzen dituelako. Hala ere, ez dugu inoiz sonoritate berezirik

bilatu katxarro *vintage*ekin edo gauza arraroekin. Alde horretatik gure soinua oso naturala da.

Gero eta urrunago dago taldearen izena jartzeko inspiratu zintuzten Lemmy...

Bai, betidanik egon gara berarengandik urrun. Izena anekdotikoa da, baina oraindik etortzen zaigu kontzertuetara jendea Motörheaden kamisetak jantzita eta beraien omeneko talde bat garen esperantzaz, kar, kar, kar.

Bonba nuklearra botako balute, power-popa eta 60ko hamarkadako garagea salbatuko zenituzkete?

60ko hamarkadako asko; eta glam, punk, new wave, hard-rock, grunge eta australiar rockean salbatzeko modukoak daude. Baina biziki maite dugu power-popa: Raspberries, Cheap Trick, Romantics, The Knack, Hoodo Gurus... ■

